AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

5235

AGINDUA, 2024ko azaroaren 7koa, Segurtasuneko sailburuarena, Segurtasun Saileko behin-behineko langileak lanpostutik kentzeko dena.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.5 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, hemen zehazten den langilea lanpostutik kentzea formalizatzen dut. Beraz,

HAU EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Carlos Cuenca Valdivielso jauna Segurtasun Sailean segurtasun publikoaren arloko prestakuntza politiketarako aholkulariaren lanpostutik kentzea (kodea: 5300; dotazioa: 1; maila: zuzendaria), beste kargu bat beteko duelako Segurtasun Sailean, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Lanpostutik kentzeak 2024ko azaroaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 7a.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.